

AKORDEOI IKASTAROA

Musika garaikideko konposizioa

Gabriel Erkoreka

José María Sánchez-Verdú

Zarautz, irailaren 15etik 18ra

Laguntzaileak:

HAUSPOZ

Euskal Herriko Akordeoi Elkarte



ZARAUZKO UDALA



ZARAUZKO UDALA

HARTZAILEAK:

Akordeoilariak eta akordeoi-irakasleak, baita gaur egungo artean eta musikan, batez ere akordeoiarekin (aukera handiko musika-tresna) egiten den musikan interesa duten musikagileak eta musikariak ere.

HELBURU PEDAGOGIKOAK:

Ikasleei akordeoiak musika garaikidean dituen erabilerak erakutsi eta horien berri ematea, hain zuzen, bi irakasleek musika-tresna honekin duten esperientziaren bitartez.

PROGRAMA:

Bi irakasleek programa bera irakatsiko dute, ikuspegi desberdinekin ordea:

1go eguna (Gabriel Erkoreka) – 3. eguna (José María Sánchez-Verdú)

- Gaur egungo akordeoi-musikara hurreratzea.
- Alderdi estetikoak, historikoak eta teknikoak.
- Analisia eta entzutea.

2. eguna (Gabriel Erkoreka) – 4. eguna (José María Sánchez-Verdú)

- Musikagile gonbidatuen katalogoko obra jakinetan akordeoiarekin sakontzea (bakar-saioa, ganbera, orkestra eta opera).
- Analisia eta entzutea.

- Akordeoiak musikagileari eskaintzen dizkion baliabide teknikoak: akordeoiaren ezaugarriak eta akordeoiak konposizioan duen erabilera.
- Akordeoiak orkestran dituen erabilera eta funtzioa aztertzea, sortzaile gonbidatuen obren azterketa xehatuaren bidez.
- Akordeoia, musikagilearen sormenaren igorle gisa: aldakortasuna eta estetika desberdinetara moldatzeko gaitasuna.
- Akordeoiak ganbera-musikan eta musika-tresna solista bezala duen erabilera, musikagile gonbidatuen obren azterketa xehatuaren bidez.
- Irakasleen obrak akordeoiaz jotzea eta obrak aztertzea.

IRAKASLEAK:

Gabriel Erkoreka

Gabriel Erkoreka Bilbon jaio zen, 1969. urtean. Bilbon ikasi zuen, baita Gasteizen ere, Carmelo Bernaolarekin, eta Konposizioan, Pianoan eta Ganbera-musikan Ohorezko Sariak irabazi zituen. 1995ean Londresko Royal Academy of Music-en matrikulatu zen, Michael Finnissy irakaslearekin graduatu ondoko konposizio-ikasketak egiteko, eta RAM bikaintasun-diploma eta Masterra lortu zituen University of London unibertsitatearen eskutik.

Bere musika-lanak munduko hainbat tokitan jo dira: Venezia, Viena, Londres, Hong Kong, Tokio, Sydney, Chicago, Amsterdam, New York, Finlandia, Madril edo Berlin, besteak beste.

Erkorekak sari asko lortu ditu bere konposizioengatik, horra hor: SGAEko 1996ko Lehenengo Saria; Eusko Jaurlaritzako 1999ko Saria; Josiah Parker Prize, eta Royal Academy of Music-eko beste sari batzuk. Duela gutxi, Sofia Erregina Saria lortu du, Ferrer-Salat Musika Fundazioaren eskutik.

Halaber, enkargu ugari izan du, erakunde hauek eskatuta: INAEM, SGAE, Amsterdamgo Nieuw Ensemble, Hannovereko Biennale für Neue Musik, Madrilgo Autonomia Erkidegoko Orkestra Sinfonikoa, Kultura Ministerioa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa...

2001ean Royal Academy of Music-eko (ARAM) ohorezko elkartekide izendatu zuten, eta orkestrazio-eskolak eman zituen bertan. Era berean, hitzaldiak eman ditu Bilbon, Madrilen, Londresen, Chicagon edo Manchesteren, besteak beste.

Gaur egun Londresen bizi da, eta konposizio-irakaslea da MUSIKENE - Euskal Herriko Goi-mailako Kontserbatorioan.

José María Sánchez-Verdú

Algecirasen jaio zen, 1968. urtean. Granadan hasi zituen musika-ikasketak, J. Marabotto eta J.A. García irakasleekin, eta Madrilen jarraitu zituen, D. Vega, J. López Calvo, A. García Abril edo E. García Asensio irakasleen eskutik. Bertan prestatu zen musikagile, zuzendari eta musikologo bezala, eta aparteko sariak

lortu zituen Fugan eta Konposizioan. Aldi berean, Zuzenbidean lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen eskutik.

Europako musika-eskola askotan gehitu zuen musikagile-prestakuntza (Siena, Haga, Darmstadt edo Paris, besteak beste), eta Frankfurtoko Musikhochschlen graduatu ondoko ikasketak ikasi zituen hainbat urtez, H. Zender irakaslearekin.

Kontrapuntu eta Fuga irakaslea izan zen Madrilgo Goi-mailako Errege Kontserbatorioan, eta harrezkero Europako musika-eskola askok gonbidatu dute irakasle eta hizlari bezala.

2001. urteaz geroztik, Konposizio irakaslea da Dusseldorfeko Robert-Schumann-Hochschule musika-eskolan.

Sari hauek irabazi ditu, besteak beste: Musikako Sari Nazionala, 2003an, epaimahaiak aho batez erabakita; hiru SGAE Sari; Ciutat d'Alcoy Saria; C. Halffter Saria; J. B. Comes Saria;

INAEM/Colegio de España Saria, Parisen... Baita munduko gainerako herrialdeetan ere: Junge Deutsche Philharmonie-ko Lehenengo Saria, Bergische Biennale-ko Lehenengo Saria, eta 2000. urtean, Förderpreis Konposizio Saria, Municheko Siemens Fundaziokoa. Halaber, Tokioko Irino Prizeren finalista izan da.

Duela gutxi, Antara Saria eman diote bere karrerari, Limako Musika Garaikideko Musikaldian.

IKASLEEN HAUTAKETA:

Ordenaren arabera jasoko dira eskabideak, tokiak bete arte.

Antolatzaileek, tokiak betetzen ez badira, tailerra bertan behera uzteko eskubidea erreserbatzen dute.

DATA, IRAUPENA ETA TOKIA:

DATA: 2009ko irailaren 15etik 18ra.

IRAUPENA: 20 ordu (5 orduko 4 saio).

ORDUTEGIA: 15,00etatik 20,00etara

TOKIA: EUSKALTEGIKO IKASGELAK
Iturribidea kalea, 29-30

ZARAUTZ

MATRICULA (prezioak BEZa barne):

– Ikasleak:

- Bi modulo (ikastaro osoa): **150 €**
- Modulo bat (2 egun Gabriel Erkorekarekin edo 2 egun José María Sánchez-Verdúrekin): **90 €**

– SGAEko bazkideak, Autore Fundazioa/SGAEko ikasle ohiak eta Hauspoz elkarteko kideak:

- Bi modulo (ikastaro osoa): **125 €**
- Modulo bat (2 egun Gabriel Erkorekarekin edo 2 egun José María Sánchez-Verdúrekin): **75 €**

Matrikula egiteko azken eguna: 2009ko uztailaren 8a

IZENA EMATEKO ETA ORDAINTZEKO MODUA:

Mesedez, ikusi izena emateko orria.

INFORMAZIO GEHIAGO

AUTORE FUNDAZIOA:

Gran Vía, 29 – 1.
48009 – BILBO
Tel: 94 415 04 44
E-mail: oibanezq@sgae.es

www.fundacionautor.org

OHARRA: Ikastaroa bukatzean, ikasle guztiei diploma bana emango zaie.

Autore Fundazioak eta SGAEk, programaren edozein alderdi aldatzeko eskubidea erreserbatzen dute, baldintzen arabera.